

Begiak zabalik dituena

Arantxa Urretabizkaia

Zabalik, 1999-12-04/05: 34.

Zahartzaroan funtsezko gauzeekin gelditu dela dio idazleak eta badirudi horixe bera egin duela bere gorputz lirainak. Batez ere buruak.

Balio ez duena kendu, busto bat edo txanponetako soslaiarik hoberena lortu arte.

Urdin ilunez jantzirik goitik behera, edozein edadeko gizonek hain gustura janzten dituzten panazko galtzak eta jertsea, txukun eta dotore. Zaindua. Ordenatua, munduaren beste aldetik ekarri zituen gutun eta paperak bezalaxe, ordenatuak.

Eskuen keinuak bezalaxe. Izter gainean uzten ditu luzaroan, lozorroan baleude bezala.

Eta halako batean, agindu ezkuturen bati erantzunez edo, hegan hasten dira, hitzekin nahastu arte. Ez luzaroan, ordea, Martinek indarrak alferrik galdu behar ez direla adierazi nahi balu bezala.